



Urretxu

2013 Martxo  
117.alea

# KIXO

2.orrian  
ANIZTASUNA  
BIZI  
4.orrian  
GAZTE BIDEAN  
6.orrian  
LANGABEZIA  
URRETXUN  
8.orrian  
GOIERRI  
SASKIBALOI  
TALDEA  
10.orrian  
IRIMOKO  
PROZESUA  
11.orrian  
MUSIKARIEN  
PROZESUA  
14.orrian  
AURREKONTUAK



12.orrian

**HERRIA  
AUZOETATIK  
ERAIKIZ:  
APARIZIO**



«Gracias a esta mesa se quiere pasar de la dicotomía local/inmigrante y pasar al de ciudadanía, diversa pero ciudadanía»

# Aniztasuna biziz

Itziar Pildain –Urretxu, 1984– es la nueva dinamizadora de la mesa para la convivencia y la diversidad del Ayuntamiento de Urretxu. Además de sus estudios como trabajadora social, antropología y técnico en inmigración, participó en el diagnóstico que se realizó en 2009 en Urretxu y tiene experiencia en varios centros de acogida de inmigrantes. Se ha impuesto el reto de tratar de tender puentes entre las distintas comunidades que residen en Urretxu.



*¿De dónde y con qué surge esta mesa para la diversidad y la convivencia?*

Hace dos años el Ayuntamiento hizo un diagnóstico participativo con diferentes estamentos del pueblo y de ahí salieron diferentes necesidades. Por una lado las necesidades personales como trabajo, vivienda... de los inmigrantes y por otro las necesidades comunitarias, enfocadas a la diversidad.

El objetivo de esta mesa es trabajar la diversidad y la realidad que se crea de una forma comunitaria. Para ello se ha creado un grupo formado por gente nacida en Urretxu y por gente llegada de distintos lugares y en ese grupo se trabajan todos los temas relacionados con la diversidad y la convivencia.

*¿Cuál es su papel en esa mesa?*

Yo soy la dinamizadora, lo que se pretende es que se hable de estos temas, que sea un grupo mixto, que

**KAIXO**  
UDAL ALDIZKARIA  
117.alea

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Gattiken

Erredakzioa: Jon Ormazabal eta Gattiken

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIXOK ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Más información/informazio gehiago:

[www.urretxubiziz.com/kaixo](http://www.urretxubiziz.com/kaixo)

los inmigrantes participen en todo el proceso y en la sociedad. Pero eso no se da de una forma natural, es muy difícil que se junten ocho personas y digan “vamos a hablar de convivencia o de diversidad”. Mi papel es el de tejer un puente entre esos dos grupos. Al principio llevaré temas a tratar por ese grupo pero el objetivo es que, con el tiempo, sea el propio grupo el que lleve el peso.

*¿Puede el momento actual, con la crisis económica existente, ser un obstáculo en esas relaciones?*

-Todavía no hemos hecho un diagnóstico en la sociedad, se hará desde la mesa. Pero lo que he visto en las reuniones realizadas es que, por parte de los que han venido de fuera, había ganas de relacionarse con los autóctonos y desde los locales, ganas de conocer las realidades de los inmigrantes y disposición de, cuando fuera posible, realizar un trabajo conjunto. En el diagnóstico de hace dos años se detectó una gran falta de conocimiento mutuo, falta de objetivos comunes y todo eso crea miedos, prejuicios, rumores... Y eso crea la división entre «nosotros y ellos». A veces sí que nos cuesta aceptar a los inmigrantes como ciudadanos, siempre hacemos esa división, entre «nosotr@s y ell@s». Gracias a esta mesa y al conocimiento mutuo, lo que se desea es crear un “nosotr@s”, la “ciudadanía”, diversos pero ciudadanos.

*¿Siguen funcionando los estereotipos?*

Según unos expertos, en estos tiempos de crisis hay mayor tendencia a hacer estas divisiones y a decir “nosotros somos los de aquí, tenemos más derechos”, “si nosotros estamos sin trabajo cómo lo vais a tener vosotros”. A nivel de Gipuzkoa se ha elaborado una “red contra los rumores” y ahí se lucha contra este tipo de cosas que se dicen muy fácil pero que no son verdad. Por ejemplo, los ámbitos en los que solicitan trabajo los inmigrantes no nos quitan nuestros puestos de trabajo, son campos distintos y no se pueden decir cosas así.

*¿Cómo han sido las primeras reuniones?*

Se han realizado los primeros contactos, presentaciones y una exposición de los ámbitos de trabajo, el conocimiento mutuo es uno de los principales objetivos. Cada uno ha contado su experiencia, lo que le ha tocado vivir a cada uno, y se habló sobre los estereotipos. Escuchar las experiencias de cada uno funciona. Por ejemplo, una cubana contaba que ella vino a trabajar, con la intención de luego traerse a su familia y a su marido, “pero siempre seré la cubana que ha venido a por un hombre”. Otro comentaba que por su color de piel parecía que no podía tener una calidad de vida “si vistes mejor que yo”. También era curioso escuchar cómo han tenido que oír muchas veces que si no les daba miedo venir a Euskal Herria, el estereotipo de que nosotros somos terroristas también lo habían vivido.

*En principio, su proyecto es de 6 meses, ¿qué querría conseguir para darse por satisfecha?*

Al final lo que quiero es que haya un conocimiento mutuo, que se extienda entre la población la idea de que la diversidad es positiva. Siempre se habla de los aspectos negativos de la diversidad y nos olvidamos de lo positivo. Cuando vamos de viaje por ahí buscamos lo exótico, lo más raro y estamos dispuestos a cualquier cosa y la que tenemos en la puerta de al lado no la valoramos. Mucha gente que ha ido a África ha vuelto con un tatuaje de henna y resulta que en el grupo, hay dos personas que lo saben hacer.

Está claro que es un fenómeno nuevo para mucha gente y quizá nos cree algunos conflictos que no tienen por qué ser negativos. Son indicadores de algo y hay que saber gestionarlos y buscarle sus aspectos positivos. Yo me quedaría satisfecha si se expandiese eso de que la diversidad es algo positivo.

Lee la entrevista completa en:  
[www.urretxubiziz.com/kaixo](http://www.urretxubiziz.com/kaixo)



# Gazte Bidean, arrakasta kudeatuz

Argazkia: Luis Angel Tellez



Beste askoren artean, bi dira 2010. urteko abenduan ireki zen Gazte Bidean Nerabeentzako Udal Zerbitzuen helburuak: gaztetxo hauen gizarteratze-harremanak garatzea eta euren aisialdia modu aktibo eta osasungarrian bideratzea.

Jasotako datuen arabera, bi urtetako ibilbide honetako balorazio oso positiboa egin dute zerbitzu honetako arduradunek, izan ere, 28.000 etorrera inguru izan baititu eta neguko asteburuetan, batz bestea 85 gaztetxo biltzen baititu, -asteazken eta ostegunetan 25 neska mutil biltzen dira bertan-.

Gazte Bideanen eskaintza nerabeen aisialdi ordutegietara egokitzen da eta asteburuetan, ostiraletik igandera, 12,5 orduz izaten da zabalik, beti ere arratsaldez. 12-13 edo 15-17 urte bitarteko gaztetxo nahiak, kezkak edota har ditzaketen ardurak oso desberdinak direnez, adinaren arabera txandetan

banatzen dira, gazteenak lehenago eta helduagoak beranduxeago sartuz.

Solasaldietan parte hartzea, euren proiektuak aurrera ateratzeko laguntza bilatzea edota euren urtebetetze eta meriendak ospatzeko aterpe bat izatea dira gaztetxo hauek Gazte Bideanera gerturatzeko arrazoiak.

Baina hau guztiaz gain, beste hamaika ekitalditan parte hartzeko aukera ere eman die Gazte Bidean zerbitzuak; esaterako, sukaldaritza-tailerrak, txapelketa desberdinak, sexualitate-tailerrak, txapa-tailerrak, adituekin solasaldiak, Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketa, orrazketa tailerrak, lehen sorospenak...

Baina euren arteko harremanez harago, herriko beste eragileekin eta taldeekin kontaktuan izatea eta herriko dinamiketan integratzea ere bultzatu da eta hala, Zintzo Mintzo euskaltzale elkarteak, Xake Taldea, Ikastetxeek, Udal zerbitzuek, Osakidetzak...

antolatutako zenbait ekitalditan ere parte hartu dute bertako nerabeek. Bi herrietako jaietan eta gutxi barru herritik pasako den Korrikan ere euren aletxoak jarri dute gaztetxo hauek.

Ekimen hauek guztiak ordea, lan-tresna bezala erabiltzen ditu zerbitzua daraman Karrikako lantaldeak, nerabeekin harreman-hezitzailea finkatzeko baliabide gisa, hain zuzen ere. Horixe baita euren eginkizun nagusia, gure bi herrietako neska-mutikoei konfiantzan eraikitako harremana luzatzea, euren bide-lagunak izan ahal izateko heldutasunerako ibilbide propioan.

Dena dela, orain arte elkarrekin egindako bide opa-roak ezin du inolaz ere helmuga izan eta Foru Aldundiko aholkularien laguntzarekin, urte honetan zehar, egoeraren diagnostiko bat burutuko da, zerbitzuaren asetze maila, bere bertuteak eta hobetu beharrekoak antzeman asmoz.

## Erabiltzaileraren profila:

%47a urretxuarra da; % 50a zumarragarra da;  
% 3 inguruko herritakoa.

% 51a neskak dira; % 49a mutilak dira.

% 41a Ikastola-Lizeoko ikasleak dira; % 31a Gainzuri-J.M.Iparragirreko ikasleak dira; % 21a La Salleko ikasleak.

Adinen arabera ere, orekatuak dira datuak: Egun, 500 bat nerabe 12-17 urte bitartekoak dira; % 43a 12-14 urte bitartekoa eta % 57a 15-17 urte bitartekoa.

## Informazio orokorra:

Iparragirre Plaza; Jauregi 10. Urretxu  
Adinak: 12-17 urte

### ORDUTEGIA:

Asteazkenak. Ostegunak. Igandeak: 16:30-20:00  
Ostiralak. Larunbatak: 16:30 – 21:00

### TXANDAK ADINEN ARABERA:

Ostiral, larunbatak: 12-14 urte: 16:30-18:45;  
15-17 urte: 18:45-21:00  
Igandeak: 12-14 urte: 16:30-18:15;  
15-17 urte: 18:15-20:00

TELF: 943 03 88 27

E-MAIL: gaztebidean@gmail.com



# 442 langabetu Urretxun

2012. urtea 1.667 langabaturekin amaitu da Urola Garaian, 2011 baino 232 langabetu gehiagorekin eta 2010a baino 258 gehiagorekin. Poblazio aktiboaren %13,95ean kokatzen da langabezia tasa gure eskualdean. 2012ko laugarren hiruhilekoan, Urretxun 442 langabetu zeuden, hirugarren hiruhilekoan baino 35 gehiago eta 2011 urteko azken hiruhilekoan baino 78 gehiago. Gizonezkoen artean 193 dira langabetuak (%11,31) eta emakumeen artean, aldiz, 249 (%17,35). Zumarragan, esaterako %14,62 eta %18,43 ziren datuak, hurrenez hurren, eta Legazpin %9,63 eta %14,24ekoak.

Lan kontratuei dagokienez, zerbitzuen sektorean Urretxun 150 pertsona kontratatu dituzte 2012. urteko azken hiruhilekoan. Industrian 120 dira epealdi berean egin diren kontratu berriak eta eraikuntzan hamahiru.

283 kontratu berri egin dira denbora epe horretan osotara. Kontratu berrietatik, 171 emakumeei egindakoak dira, eta 112 gizonei.

Urretxuko Udala ere saiakera berezia egiten ari da herrian enplegua sustatzera begira. Alde batetik, hiru lanpostu berri sortu dira: kontu hartzailearena, udal brigadako lanpostu bat eta bizikidetzaren dinamizatzailearena. Enplegua sustatzera begira Urretxuko Udalak abiarazitako ekimenak ez dira hor amaitzen. Urola Garaian egin den azterketaren arabera, eskualdeko langabetuen profila kualifikazio maila baxukoa da. Iraganean eskualdeak industria arloan izan duen lan eskaintza handiak eta soldatek bultzatuta, gazte askok euren ikasketak ez luzatzea ekarri du. Azken datuen arabera (2001koak) Urola Garaian, hirugarren mailako ikasketak zituen poblazioa %23,15a zen,

Gipuzkoako batzbestekoa %28,18koa eta EAEkoa %30,65koa ziren bitartean. Horri, jakintza ihesa gehitu behar zaio, bizi diren herrian lan egiten ez duten pertsonena. Krisi ekonomikoak areagotu egin du ihesaldi hau.

Eskualdean, 16 urtetik gorako herritarren artean, %43,90ak oinarrizko ikasketak ditu; %20,4ak bigarren mailakoak eta %15,12ak profesionalak. Goi mailako ikasketak dituen herritarren batzbestekoa %9,7 da. Osotara, formazio berezirik gabeko pertsona kopurua %68 da. (2010ean datu hori %75koa zen). 2012an, 10etik 7 langabetu ez dute formazio berezirik.

Emakumeek, oro har, gizonen baino formazio maila hobea dute gure eskualdean, baina maila guztietan, gizonen langabetu kopurua gaituzten dute. Agian, datu esanguratsu bat honakoa da: unibertitate ikasketak dituzten emakume langabetuen kopurua gizonenaren bikoitza da Urola Garaian.

Hori ikusirik, Urretxuko Udalak formazioan eragiteko asmo irmoa hartu du eta Urola Garaiko enplegu planaren baitan, Urretxuko Udalak formazio ekimenetarako aurreikusita dauden aukerak baliatuko ditu:

Enplegu berdearen baitan, aurrez jasotako 150 orduko bi ikastaro jarri dira martxan eta bertan parte hartzen ari diren ikasleek ondoren eskualdeko enpresetan 6 hilabetez diruz lagundutako praktikaldiak egiteko aukera izango dute. Urretxuko Udalak bi lagun hartuko ditu honako lanetarako 6 hilabetez:

- Ingurumen ziurtagiria, EKOSCAN inplementazioa.
- Energia ekoefiziente plana udal eraikinetan martxan jartzeko.



## Deskargako lanetan Urola Garaiko bi langile kontratatu dituzte

Beasain-Bergara ardatzeko lehenengo zatia, Beasain eta Zumarraga artekoa 2006an ireki zen. Bigarren zatia, Zumarraga-Urretxu, 2012ko ekainean ireki zen. Urretxu eta Antzuola arteko zatia, berriz, 2011 uztailan hasi ziren egiten, Bidegiren zuzendaritzapean, eta oraindik bukatu gabe dago. Urretxuko Udala, ordutik (2011ko irailetik) ari da lanean bertako eraikuntza enpresek eskualdeko langabetuak kontratatzeko konpromiso handiagoa eskatuz. Hori horrela izanik, lanak eskualdean izango duen eragina kontutan hartuta Foru Aldundiarekin ere elkartu dira udal ordezkariak eta denek batera lan hori egingo duten enprekin hitz egin dute zenbait konpromiso lortuz. Horren ondorioa da obrak eragina izango duen herrietan langabetuen zerrendak osatu izana. Enpresek langileak behar izanez gero, konpromisoa hartu dute langabetu horiei lehentasuna emateko.

Orain bi hilabete, Antzuola eta Bergara arteko errepideko azken zatia egiteko lanak hasi ziren, Antzibar-Moyua UTEak lortutako esleipen bitartez. Enpresa honek aurkeztutako proiektuaren hobekuntzetako bat horixe izan da. Baldintza plegu guztiak betetzeaz gain, langabetuekiko konpromisoa erakusteko inplikazioa agertu du. Azken urte eta erdiko lanek eta saiakerak aukera eman dute Urretxuko Udalaren bitartez, eskualdeko bi langabetu kontratatzeke, egungo tuneleko lanetan dihardutenak, hain zuzen ere. Horrez gain, Urretxuko, Legazpiko, Antzuolako eta Bergarako Udalek euren herrietan erroldatuta dauden eta interesa duten pertsonen izenak jaso eta enpresen eskura jarri dituzte. Obrak dirauen denboran, 2015eko udaberriara arte, bertako langabetu gehiago hartzeko konpromisoari jarraipena egingo zaio eta lan gehigarrietarako (elektrizistak, soldadoreak, kaldereria...) kontratazioak egiteko eskualdeko enpresen katalogoa ere luzatu zaie.

# Goierri Saskibaloia Taldea, harrobitik elitera



Herrian saskibaloiak betidanik izan du tradizio handia, eta azken urteotan momentu oso onean dago, Goierri Kirol Elkartearen saskibaloia sailak egindako lanari esker, bereziki. Hamalau talde eta 160 jokalaririk in-guru biltzen ditu guztira Goierri saskibaloia taldeak, maila ezberdinetan banatuta.



Gizonezkoen senior mailako taldearentzat, denboraldi berezia izaten ari da aurtengoa; izan ere, saskibaloiko EBA ligan ari dira jokatzen aurten, iazko denboraldiaren amaieran mailaz igotzeko aukera izan ostean. «Berez ez ginen mailaz igo, baina beste talde batzuk ezezkoa eman zuten arrazoi ezberdinak tarteko, eta guri eskaini ziguten EBA ligan aritzeko aukera», dio Xabier Chico, taldeko entrenatzaileetako batek.

Urte askoan jokatzen ibilitakoa da Chico, eta ondo ezagutzen du bai taldea eta baita saskibaloia mundua ere. «Jauzi handia dago maila batetik bestera, bagenekien hala izango zela, baina urtearen amaieran hausnarketa egingo dugu, eta merezi izan duen ala ez ikusiko dugu».

Izan ere, EBA ligan aritu edo beheagoko mailetan aritu, aldea nabarmena da, ekonomikoki eta baita egitura aldetik ere. Lehen Hego Euskal Herrian eta Errioxan izaten zizuten partidak, eta aurtengo denboraldian Kantabria, Burgos, Salamanka eta Valladolid aldera ere bidaiatu behar izaten dute hamabostean behin. ACB da estatu mailako saskibaloiean goreneko maila, eta Gipuzkoan Lagun Aro Gipuzkoa Basket talde donostiarra ari da bertan jokatzen. Hortik behera LEB Oro liga (ez dago ordezkari gipuzkoarrik), LEB plata liga (Askatuak eta Iraurgi talde gipuzkoarra ari dira bertan) eta EBA liga daude, zeinetan, Goierriekin batera, Easo eta Oñati taldeak ari diren jokatzen. Goierri Gipuzkoa mailan puntan dagoen seinale garbia.



Goierri saskibaloitza 450 bazkide inguru dauzka gaur egun, diruz taldea laguntzen dutenak. EBA ligan aritzeko aurrekontu handiagoa behar izan dute baina ez hori bakarrik: «egitura handiagoa eskatzen du, partidetan mediku bat egotea beharrezkoa da, estatistikak jaso beharra dago, eta partida grabatu beharra daukagu federazioari eta aurkariari kopia bana bidaltzeko. Egitura handiago honek lanak banatzera behartu gaitu, eta askoren laguntza ezinbestekoa da hau guztia aurrera eramateko» dio Chicok.

## «taldeak 450 bazkide inguru dauzka gaur egun, diruz taldea laguntzen dutenak»

Edozein kasutan, pauso bat aurrera eman izana ez da kalterako izango: «denboraldia gaizki bukatu eta jaitsez gero ere, egituraren pauso bat aurrera eman izana hori geratuko da eta hori guztia onerako izango da». Une honetan bolada txar xamar bat igarotzen ari dira emaitzei dagokienez, baina ez dute etsitzen eta urte amaierara arte borrokan jarraitzeko asmoa daukate.

Goierri saskibaloitza taldea harrobia lantzen duen taldea dela ez dago zalantzarik: «taldean gehienak herriko jokalariek dira, 8, eta beste 4 kanpokoak. 22 urtez azpiko jokalarik asko dago

taldean eta ligako talderik gazteenetakoa da. Esperientzia falta hori nabaritzen da zenbait unetan, eta denborarekin esperientzia hartzen joatea da helburua». Chicoren esanetan, taldean «jokalarik onak ditugu, baina gorago iristea oso zaila da. Esperientzia handia behar da. Beheko mailetan Gipuzkoa eta Euskal Herri mailako selekzioetan dagoen jendea badugu, 8 neska eta bi mutil daude teknikazio planetan, baina ez da erraza gora egitea».

Larunbatetan jokatzeko dituzten normalean partidak Goierri eta kanpotik datorren jendea harriztatzen geratzen da dagoen giroaz. Jende gazte asko joaten da partidak ikustera, askok harrobiko taldeetan jokatzeko dute, zaletasun handia dago, eta talde nagusia horientzat guztientzat erreferentzia bat da. Egunen batean bertan jokatu nahiko lukete.

Izan ere, Chicok dioenez «saskibaloitza daukan abantaila da kalera ateratzea, eta horretan saiatzen gara, jendea erakartzeko aldera. San Juanetan eta Etxeberriko jaietan 3X3 txapelketak antolatzen ditugu, eta jendea zain egoten da horiek noiz iritsiko. Giro oso ona sortzen da horien inguruan».

Gorka Azkarate





# Irimoko prozesua

**Urretxuko Udalak Irimoko industriaguneari zein erabilera eman behar zaion zehazteko parte hartze prozesu bat abiarazi du.**

Proiektua EUROPAN 12 hirigintza lehiaketan sartu dute, eta horri esker, Europako hainbat arkitekto Irimoko zonalderako proposamenak egingo dituzte. Urretxuko Udalak Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Sailaren babes ekonomikoa eta teknikoa jaso du Gipuzkoan aitzindari eta bide erakusle izango den proiektu honetarako.

Egitasmoak espazioaren epeko transformazioa aurreikusi du, eta erabilera konkretuak zehaztu baino, ingurune horretan garatu daitezkeen aukerak ireki nahi ditu. Memoria kolektiboaren irudikatzea; kultur, kirol, aisi eta formazio sektorea osatzeko azpiegiturak; kultur arloaren, ekintzaileen, enpresen eta sare sozialaren arteko sinergia espazio bat; co-working filosofia garatuko duen espazio bat; formazio zentroetako proiektu praktikoentzako gune bat edota enpresentzako eta industriarentzako zerbitzuak jartzea dira parte hartze prozesuaren lehen pausutik atera dituzten ideietako batzuk.

Prozesuaren lehen hiru faseak amaitu dira jada. Lehendabizikoan herriko eragile estrategikoak elkarri zuzentatu dituzte; sozioekonomikoak, soziokulturalak nahiz kirol munduko kideak eta enpresa jabeak. Alderdi politikoetako ordezkari guztiekin ere bildu dira. Bigarren faseak adituen hitzaldi batzuk bildu zituen, eta hirugarrenak, azkenik, tailerrak, 4 egunetan zehar 60 lagunetik gorak parte hartu dute urtarrilean zehar. Behin bertan jasotako material guztia txukunduta eta prestatuta, parte hartzaile guztiei zabalduko zaie, laugarren fasean dinamika herritar guztiengana zabaldu eta bizilagun guztien ekarpenak jaso asmoz.

Europar lehiaketaren emaitzak 2013. urtea amaitu aurretik jasoko dira. Epe ertainerako ekintza batzuk aurreikusi dituzte eta aldi berean, Irimoko gunerako erabilera egokiena zein izan daitezkeen josten joango dira parte hartzaileak. Udalak erabaki hori errespetatuko du eta behar diren baliabideak lortzen saiatuko da.

# Musikariak elkarlanean

Urretxuko musikariak ere parte hartze prozesu batean murgilduta daude. Ez soilik 2013rako aurrekontuei dagokienean, izan ere, musikarien elkarlana, elkar-teen artekoa izateaz gain, herrien artekoa ere izaten ari da.

Orain urte pare bat Urretxuko udalak herriko musikari taldeak bildu zituen talde bakoitzaren egoeraren berri izateko. Gabeziak eta indarguneak identifikatu zituzten orduko hartan. Iaz, Urretxuko parte hartze prozesua abiatu zen eta kultur sektoreak musika taldeez gain, bestelako eragileak ere bildu zituen. Bilera horietan, orokorrean taldeen arteko harremana ona zela, baina elkarlana txikia zela ikusi zuten eta guztiak elkar hobeto ezagutzeko eta batzuen eta

besteen arteko elkarlana sustatzeko asmoz, ekitaldi bateratu bat egitea adostu zuten. Irailean Zumarragako musikariekin biltzen hasi ziren. Orain bi urte egindako analisi hartan identifikatu zituzten ahulgune horiei irtenbidea eman asmoz elkartu ziren. Berriro ere atera zen ekitaldi bateratu bat egitearen kontua eta 2013an ekitaldi horri forma ematea erabaki dute: zer egin, nola, nork... Euren asmoa, ekitaldi hori 2014ean egitea da. Lan ildo batzuk ere zehaztu dituzte bileretan, hainbat arazori epe laburrean irtenbidea eman asmoz, horien artean, Sarraldeko lokaletan hobekuntzak egitea (larrialdiko irteerak jarri, bilerak egiteko gela bat jarri, alarmak konpondu,...). Bilerei jarraipena emango diete, bi hilabetero.



## Edurne Retegi

Urretxuko txistularia eta dultzainaria

“Prozesu interesgarria da, azkenean beste taldeetako errealitatea gertuagotik ezagutzeko aukera ematen duelako eta elkarrekin gauzak egiteko aukera berriak irekitzen direlako. Orain arte elkarlanean aritzen ginen, eta gauza politak egiten dira, baina

bilera hauekin, elkarlanaz harago, dauzkagun arazoak partekatu ditzakegu eta talde batek baino gehiagok arazo berdina badugu, irtenbidea elkarrekin topatzea errazagoa dela uste dut”.



Josema Piris y Amaia Lasaga viven en el barrio Aparicio. Han participado en el proceso de los presupuestos, identificando y estudiando las necesidades de su barrio. Creen que el proceso para llevar las preocupaciones vecinales al ayuntamiento era «algo necesario».

## Barrio Aparicio

*¿Cómo recordais el comienzo del proceso?*

No sabíamos que sería. Nos llamaron y fuimos a escuchar. Al principio puede que ni el mismo dinamizador tuviera muy claro como gestionar esas reuniones con vecinos, también había vecinos de la calle que no se sentían parte de un barrio.

*¿Tenias alguna esperanza en el proceso?*

Esperanza.... de que surgiera una conversación. Al menos, saber a donde ir, para hablar de los problemas del barrio o para tratar nuestras dudas. Al empezar ya conseguimos algo. Cada cual planteó sus propuestas y se han realizado dos reuniones con representantes del ayuntamiento: una con los responsables de los portales y otro abierto a todos los vecinos y a todas las vecinas. Fueron bien. El tema de Orbeagozo fue el

que sonó con mas fuerza. Esa es la principal preocupación del barrio, lo que ha vivido la gente desde hace mucho tiempo: la suciedad, la preocupación por la salud...

## *¿Qué cambiaríais en el barrio?*

Por una parte, la suciedad que sale de Orbegozo. Las obras de la nueva carretera también han ensuciado el barrio, y con todo eso a quedado muy sucio. Las fachadas que dan a la carretera se ensucian continuamente. A veces, suenan explosiones, y los restos saltan hasta la carretera o el bidegorri. Una vez, una vecina estaba en el balcón, y cuenta que por poco se cayó del susto. Hace tiempo, se pintaron las fachadas a cuenta del ayuntamiento y la gente espera que eso se repita. También surge una preocupación en torno a los riesgos para la salud. Hay muchos casos de cáncer en el barrio, también en la comarca, y con tanto humo y suciedad, surge una preocupación.

## *¿Os sentís aparte o desconectados del pueblo?*

A veces sí. Hace tiempo, el primer día de fiestas los cabezudos empezaban desde aquí, en la sociedad se hacía una chocolatada... Luego vendría una época sin tanto niño en el barrio, y se cambió el comienzo de las fiestas a Pagoeta. Los txistularis también llegaban hasta el barrio, se festejaba el día de San Martín, las fiestas del barrio en mayo.... Los que llevan mucho tiempo viviendo aquí ya conocen como era esto antes.

## *¿Hay sentimiento de barrio en Aparicio?*

Sí que lo hay. En verano nos juntamos en la calle y en invierno en la sociedad, sobre todo los hombres. Con buen tiempo, las mujeres del barrio se juntan en el parque, y ya hay ambiente. La gente está a gusto en el barrio.

*¿Después de este proceso, sentís que el ayuntamiento os escucha más que antes?*

Sí. Incluso antes de que el proceso se pusiera en marcha,

hicimos un par de peticiones, y tuvieron respuesta. Otra vez, nos mandaron una carta, informándonos de que el aparejador y otros trabajadores habían estado en el barrio, y que creían conveniente cortar ciertos árboles. En la carta nos preguntaban que pensábamos los vecinos del barrio sobre eso. Hicimos una reunión, y los vecinos dijeron que si no era muy necesario, que preferían que no los cortaran, y mostraron su disposición para encontrar otra solución. Se habló con los responsables de jardinería, y al final no se cortaron los árboles. Fue una solución trabajada entre todos.

## *¿Qué os gusta de vuestro barrio?*

La tranquilidad. Por ejemplo, es muy cómodo vivir aquí con niños. La parada del autobús del colegio esta aquí mismo. Cuando vuelven, no nos tenemos que mover de casa. Los recogemos, y tienen el parque aquí mismo. También será uno de los pocos sitios donde el último rayo de sol de la tarde se deja ver. Si es cierto que la carretera da un punto de inseguridad. Se hicieron varias peticiones, y se pusieron señales, badenes y pasos de cebra. También una barrera para el parque, aunque lo pusieron al otro lado. El semáforo no se respeta siempre, y las señalizaciones dan pie a confusiones, por lo que ya son varios los camiones que han acabado entrando al barrio confundidos.

## *¿Cómo definiríais este proceso?*

Como algo necesario. El ayuntamiento está para trabajar para el pueblo, y debe trabajar con el pueblo. Es una cosa que se debería de hacer en todos los pueblos, un *elkarlana*.

## *¿En que os gustaría que resultara?*

Una vez le oí decir a Oihane (Zabaleta), que quería que este modo de trabajar se implantara en el ayuntamiento como algo fijo, que continuara mas allá de su legislatura. La evolución debería ser esa, que siempre haya ese trabajo con el ayuntamiento, no solo mientras esté Bildu.

# Aurrekontuak



165 herritarrek hartu dute parte 2013 urterako aurrekontuak osatzeko prozesuan. Aurrekontuen proposamena bizilagunen ekarpenez bete da aurtengoan.

Ekarpenak 100ndik gora izan dira eta guztiak sartu dira aurrekontuetan. Bizilagunen kezken artean, garbitasuna, irisgarritasuna, zarata edota kale azpiegituren beharra daude.

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua amaitu da Urretxun, eta orain, udalbatzari dagokio aurrekontu horiek aztertu eta onartzea. Bi hilabetez, urretxuarrak euren herrian egin nahi dutenaz hitz egin dute, sei sektoretan banatuta: Berdintasuna, Auzoak, Base-rritarrak, Euskalgintza, Kultura eta Ingurumena. 165 pertsonak hartu dute parte prozesuan, eta 100dik gora ekarpen jaso dira amaieran, udal gobernuak aurkeztu dituen aurrekontuetan jaso dituenak.

Bitartekoak edo dirua nola banatu aztertzeaz gain, parte hartze prozesuan jardun duten sektoreek 2013an egin nahi dutena zehazteko baliatu dute aukera.

Izaera askotariko ekarpenak egon dira: antolaketari lotutakoak, ekintza ikusgarrien gainekoak, herritarrek sentsibilizatzeari eta informatzeari lotutakoak, obra txikiak... Ondoko orrian ikus daitezke sektoreka banatuta.

Bestalde, auzoetan bizilagunei galdetu zaie, euren auzoan egingo lituzketen aldaketengatik. Denetarikoko ekarpenak egon dira, eta guztiak 2013. urterako aurrekontuetan sartu dira. Ekarpenen artean daude: Kaleen eta bereziki txakurren kaken garbiketari lotutakoak, trafiko seinalizazioa hobetzera bideratutakoak, auzoetarako irisgarritasunean eragin nahi dutenak, kale azpiegituren falta somatzen dutenak, lorategien zaintzaren inguruak, zarataz kexu direnak, argiteria konpontzeko eskatzen dutenak, espalioen irristakortasunari buruzkoak....

# urretxu biziz

## BALORAZIOA SEKTOREKA

### **Baserritarrak**

Urretxun ekoizten dituzten produktuak herrian saltzeko arazoak dituzte bertako baserritarrek. Horri buelta emateko, produktuaren gaineko azterketa bat egingo dute, eta bertako produktuak banatzeko eta sustatzeko zirkuito eta ideia berriak sortu eta garatuko dituzte. Ferien izaeraren gainean gogoeta egingo dute, baserritarrentzako eraginkorrak izan daitezten.

### **Berdintasuna**

Herritarren formazioa eta sentsibilizazioa Urola Garaiko Jabekuntza eskolaren bidez landuko da. Momentuz egitasmoaren nondik norakoak lantzeko elkartzen ari dira. Orain arteko egoera gaitztea eta formazioa eta salaketa tartekatuz dinamika sortzea dira helburu nagusietako bi.

### **Ingurumena**

Ingurumenarekiko kezkatuta dauden herritarren foro bat sortuko dute. 2013. urterako sentsibilizazio ekintzei eman diete garrantzia: hondakinen arloan, airearen kalitatean,... Lehen pausua herritarrei informazioa ematea dela adostu dute eta ondoren etorriko dira aurrera begirakoak. Hainbat ekintza berreskuratzea ere aztertu dute, erreka eguna edota bigarren eskuko azokak, kasu.

### **Euskalgintza**

Euskalgintza arloan, prozesuak arlo honetako eragileek elkar ezagutu dezaten balio izan du. Urretxuko eta Zumarragako udaletxeek aurten zehaztuko duten Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoak testuinguru bat eman die, eta eragileek hori osatzen lagunduko diote aurten udalari.

### **Auzoak**

Auzoei dagokienez, konponketak eta txukunketak eskatu dituzte bizilagunek batez ere: espaloiak txukuntzea, argi gehiago edo gutxiago jartzea, errepideetako ikusmen arazoak, garbiketari lotutakoak, txakur kakak, zuhaitzak... Auzo pare batetan, Aparizio auzoan kasu, ingurumen gaiekiko kezka ere adierazi dute herritarrek, eta hori ere lantzeko asmoa agertu du udalak.

### **Kultura**

Kultur arloan lan egiten duten eragileak elkar ezagutzeko balio izan dute sektoreko bilerek. Zumarragako eragileekin ere elkartu dira, eta guztiek elkarrekin ekitaldi bat antolatzea erabaki dute, elkarren arteko ezagutza eta indarguneak aprobetxatu ahal izateko. 2013. urterako ekitaldi horri itxura ematea da sektore honetako kideen helburua.

# Kaixo Berria

Betiko udal aldizkaria berritzea erabaki dugu. 2 hilabetez behin zure etxean izango duzu. Diseinu berria izateaz gain edukia ere berritu da. Bi atal nagusi aurkituko dituzu: Udal kudeaketari dagokiona eta parte hartze prozesuarena. Interneten ere aurki gaitzakezu, bertan eduki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz aurkituko dituzu.

*Hemos decidido renovar la revista municipal. A partir de ahora, cada 2 meses estará en vuestros hogares. Además del nuevo diseño tiene contenidos renovados. Las secciones principales son dos: La que corresponde a la gestión municipal y la que trata el proceso de participación. Entra en la página web, donde encontrarás todo el contenido en euskara y castellano.*

Urretxuko udala

**urretxubiziz.com/kaixo**  
albiste guztiak eta askoz gehiago  
*todas las noticias y mucho más*

